

# ZILUETAK**MASAK**ITZALAK
# **PROFILAK**KONKORRAK**ESPEKTROAK**
# LEGENDAK**HONDAKINAK**
# IZUAK

**28.11.2014 – 20.01.2015**

**PELLO IRAZU**

Azken hogeita hamar urteetako Pello Irazuren iharduerak eskulturaren arazoei modu erabat irekian heltzea du ezaugarri, arlo materialean, formatu, material eta gailu ugariez gain, grafikotzat hartzen diren espresiobideak ere erabili izan dituena, nola marrazkia –bere kontzeptu zabalenean- hala pintura murala. Bestalde, errealitatearen erreferentzi, zeharkako aipamen edo apelazioen eremuan-berau osatzen duten irudikapen multzoari dagokionez-, zeinu material, plastiko, eta gizarte arloko gainerako zeinuen arteko joan-etorriez gainezka dago bere lana. Bi kasu horietan, bere espresiobide ugariren berezko dimentsioak, beti ere esparru eskultorikoari dagokiolarik, dimentsio ugari dituen harremanen espazio baten kontzentrazioa baino ez dira.

Carreras Múgica Galerian aurkezten den erakusketak formatu handiko lau eskulturez osaturiko multzo bat biltzen du beste txiki batzurekin batera, baita azken hilabeteotan egindako marrazki sorta bat ere, izenburutzat nozio-matrize bat hartzen duena (Ziluetak/ Masak/ Itzalak/ Profilak/ Espektroak/ Legendak/ Hondakinak/ Izuak), zeinak erabilitako zeinu-kategoria ezberdinen arteko harat-honat jokoak azaltzen dituen.

Oinarrizko maila batean, lan hauek osatzen dituzten formak, zilueta, masa edo itzal bilakatu orduko beren izaera galtzen duten objektuen kontzentrazio-prozedura batetik abiatuta sortzen dira: zilueta egindako irudi bakar batekin batzen den altzari elementu sail batez osaturiko argazki bat, masa jarrai batean azpimurgilduta geratzen den tamaina ezberdineko kartoizko kaxa multzo bat, edo beste pieza bat, zeinean material bihurtutako itzal batek piezarekin bat egiten duen.

Bigarren maila batean, modu honetan sortutako formek profil jakin batzuk definitzeari ekingo diote -zentzu gestaltiko nola idiosinkrasikoan-, berezko presentzia batzuk, konkor batzuk, hauen jatorriaren arrastoa kultur identifikazio zehatz batzutatik abiatuta jarrai daitekeelarik: forma horiexetan biltzen dira halaber hainbat familia espektro, arbaso, asaba zahar, eta hauekin harreman ezinbestez agoniko bat sortzen da: bere eredua hain sutsuki maitatu eta gorrotatzen zuen XVI. mendeko artista manieristak bezalaxe, zeinak eredu hura suntsituz bakarrik eman ziezaiokeen bere tokia eta bere-berezkoa eskuratu, euskal eskulturaren profilak, konkorrak eta espektroak, Oteiza, Chillida, Ibarrola, ezberdintasunen fantasmagoria fin batean azalerazten dira.

Azkenik, hirugarren fase batek maila sozialera garamatza. Tradizioz artearen egitarau ikonografikoak eta bereziki forma eskultorikoak (bere monumentu-bokazioan) eduki batzuk bideratzeko modua izan badira, moralizatzea helburu zutenak, gizartera balore jakin batzuk helaraztea alegia, 60 eta 70 urteetako euskal eskultura kasu -bere espresio abstraktua baduen arren- hau guztia oso modu bitxian gauzatu izan da: formak ez dira metaforikoki edukiaren eraginpean egon, forma hauexek izan dira ordea -formen katalogo jakin bat- metonomikoki zentzu anbiguo nola ezagun bat osatu dutenak, haren inguruko identifikazio herrikoia ahalbidetuz.

Erakusketa honetako eskultura handienak hurbileko tradizio honen oroipenak izateaz gain, berezko galdera bat ere badira: maiz bere formak jasandako eta hein handi batean bere eraginkortasun komunikatiboaren oinarri izandako materiaren nobleziaz oso bestela, kasu honetan materialak simaurtegitik datoz zuzen-zuzenean, zaborretik ateratako hondakinen birziklapenetik alegia. Halaber, formen irakurgarritasun hau, eredu hiperkodifikatu batean, “legenden” (irakurtzea xede duen horien) erabilpenak erlatibizatu egiten du. Legendak, pieza hauen kasuan, gizarte desegite une batean argitaratutako iritziaren etenaldi poetiko batetik abiatuta sortzen dira: kolore zatiekin manipulatutako egunkari-orrialdeak, titularren jario informatiboa zirkuitulaburtzen dutenak. Azken finean, hainbat balore eta sinesmenen inguruan kolektibitate batek erakusten duen integrazioaren ordez, masa artikulatu handiek (kontramonumentalak) poetikoki erabiltzen dituzte kolektibitateak berekiko eta bere erakundeekiko dituen izua eta gaitzustea.

ZILUETAKMARRAZKIAK
MASAK
ITZALAKGERIZAK
PROFILAKSOSLAIAKERTZAK
KONKORRAKSABELAKFARDELAKOZKORRAK
ESPEKTROAKMAMUAK
LEGENDAKONDAIRAKHITZAK
MITOAK
HONDAKINAKHONDARRAKONDARRAK
IZUAKIKARAKIZUIKARA
HARRIDURAK





*Installation views*



*Installation views*



*Installation views*






*Catalunya*. Pintura sobre papel impreso. 65 x 50 cm




*Masak IV – Cuando matan a tu hermana.* Cartón, pintura y papel impreso pintado, 210 x 262 x 70 cm



*Installation view*



*Multiple, diverso, unitario.* Acero Inoxidable, escayola, madera. 42 x 23 x 35 cm



*Itzalak – Neverland.* Aluminio, madera y pintura. 202 x 171 x 92 cm




*Masak III – la verdad.* Cartón, pin tura, madera y papel impreso pintado. 250 x 135 x 117 cm




*Detalle de la instalación*



*Siluetak.* Pintura metálica. 32 x 24 cm



*Masak II – menos mentiras.* Cartón, pintura y papel impreso pintado




*Mentiras*. Pintura sobre papel impreso. 65 x 50 cm



*Installation views*





*Perfiles.* Fundición de aluminio soldado, fibra de vidrio y pintura- 85 x 90 x 34 cm



*Masak I- no nos falta de nada.* Cartón, pintura y papel impreso pintado. 210 x 262 x 70 cm




*Detalle de la instalación*



*Siluetak I-II. After.* Pintura metálica y cinta adeshiva. 230 x 152 cm



*La verdad.* Acero inoxidable y pintura. 85 x 90 x 34 cm